

# «Best seller» izatea merezi duten literatura unibertsaleko bi lan, orain euskaraz

'Independentzien eguzkiak' eta 'Arrabioen gerra' itzuli dituzte Koro Navarro eta Aiora Jakak Erein eta Igelarentzat

JON AGIRRE

DONOSTIA. «Best seller» izatea merezi duten eta «zoragarriak» diren 'Independentzien eguzkiak' (Ahmadou Kourouma) eta 'Arrabioen gerra' (Karel Capek) eleberririk aurkeztu zituzten atzo Erein eta Igela argitaletxeek, Literatura Unibertsal saileko 187 eta 188 aleak. Halaxe laburtu zituen Koro Navarrok, Capeken liburua euskarara ekarri duena. Kouroumarena Aiora Jakak euskaratu du.

Irakurlearentzat «ezezaguna den mundua» dakarte bi lanek Navarrok esan bezala, lehenak «Afrika beltzetatik». Bigarrena, aldiz, «gutxi asko mundu berdina» da, orain Txekia denean girotua baitago, baina «70 urtez kortina batek bereiziak» izanda ezezaguna egingo da hein batean. Ez da eleberririk elkarbanatzen duten ezaugarri bakarra, Inazio Mujikak, bi argitaletxeetako ordezkariak, adierazi bezala. «Bilatua izan ez bada ere biak dira agintearen aurka jarduteko moduak. Eta umore asko dute». Hori bai, trama aldetik «gutziz ezberdinak» dira bi lanak.

'Independentzien eguzkiak' idatzi zuen Kourouma malenki etniakoa —Boli Kostan, Malin eta Ginean presente dena— zen eta frantsesez idatzi bazuen ere «mentalitate hartatik» sortu zuen. 1968an argitaratuta, deskolonizazio garaia islatzen du eta garaiko «gobernu diktatorialak» zein «osteko elite berriak» oso gogor kritikatzeko ditu. Protagonista malenki etniako Fama Bumbuya printzea da, bere kastako azken ondorengoa, eta independentziaren arau berriek arruinatu dute. «Hiriburuan bizi da emaztearekin eta miseriara kondenatua dago». Seme-alabak izateko arazoak dituzte eta antzutasunaren ideiak batzen ditu bi alorrek.

Emakumeak Afrikan bizi duen egoera ere islatzen da Salimata emaztearen bitartez eta kritika zorrotza eginda. Mendebaldeko ikuspegitik gogorrek eta urrunak badira ere, «irribarre» batekin irakurtzen direla kontatu du Jakak, «satira delako eta malenki herriak bizitakoa parodiatzeko» duelako pertsonaia guztiak ridikulizatuz.

## Zientzia fikzioa eta gerra

Capekek idatzitako liburua «gerra zientzia fikziozko klasiko» da. Arrabioak ditu protagonista,



Aiora Jaka eta Koro Navarro, atzo Donostian. **usoz**

### INDEPENDENTZIEN EGUZKIAK AHMADOU KOUROUMA

Itzultzailea: Aiora Jaka.  
Argitaletxea: Erein - Igela.  
Orriak: 256. Prezioa: 18 euro.

itsasertzetako txokoetan bizi diren izaki itsusi, ausarta eta langile amorratuak. Gizakien esklabo hasieran, urteen poderioz matxinatu eta oso maila altura heldu dira. Horrek iskanbila eta, noski, gerra ekarriko ditu. Tesuinguruak, Bigarren Mundu Gerrak, eragin handia du.

Duela ia 70 urteko liburua bada ere, Navarroken aburuz egun oso

### ARRABIOEN GERRA KAREL CAPEK

Itzultzailea: Koro Navarro.  
Argitaletxea: Erein - Igela.  
Orriak: 400. Prezioa: 20 euro.

interesgarria da. Azken bi irakurketak pandemia betean eta Ukrainako gerrak eztanda egitean egin ditu eta zenbait pasarte «bere horretan aplika daitezke», esaterako atakatik hobe ateratzeari buruzko hausnarketa edo arrabioen arteko borrokari buruzkoak. «Nahiz gure gizarte zuzenki politiko eta faltsuaren aztarnak ateratzen dira».

## EN BREVE

### CINE

## Paolo Virzi, en el ciclo Mosaico italiano

El ciclo Mosaico italiano que rinde homenaje al cine y la literatura italianas vuelve con la proyección esta tarde de la película 'Tutta la vita davanti', de Paolo Virzi, basada en el libro 'Il mondo deve sapere' de Michela Murgia, una comedia dramática que lanza una mirada crítica pero compasiva a la precariedad laboral italiana. La cita es a las 18.30 en el salón de actos del Convento de Santa Teresa. En marzo y mayo habrá otras tres sesiones con películas actuales sobre aspectos de la cultura y la sociedad.

### EMISIÓN EN GIPUZKOA

## The Royal Ballet, en directo en el cine

La Royal Opera House de Londres emite hoy en directo el ballet Manon en cines de Donostia y Errenteria. Con música de Jules Massenet y coreografía de Kenneth Macmillan, The Royal Ballet adapta la novela del abate Prévost donde «las dificultades de la heroína para escapar de la pobreza convierten a Manon en uno de los ballets más dramáticos y desgarradores». Se podrá disfrutar desde los cines Príncipe de Donostia y Niessen en Errenteria, a las 20.30 horas.

## Sigourney Weaver recibirá el Goya Internacional en la gala del sábado en Valladolid

### IKER CORTÉS

MADRID. No es que los Goya carezcan de glamour, pero el nivel subió enteros ayer con el anuncio de que Sigourney Weaver (Nueva York, 74 años), la protagonista de películas como 'Alien, el octavo pasajero' o 'Los cazafantasmas', recibirá el tercer Goya Internacional que otorga la Academia de Cine en su historia. La actriz estadounidense, ganadora del



Bafta, el Globo de Oro y el Premio Donostia del Festival de Cine de San Sebastián, recogerá el galardón el sábado, durante la gala en Valladolid.

Así lo anunciaba ayer la institución, que destacaba «su impresionante trayectoria, plagada de películas inolvidables, e inspirarnos creando personajes femeninos complejos y fuertes». El pasado año distinguió a Juliette Binoche y el anterior a Cate Blanchett.

Nacida en Manhattan en 1949, estudió Literatura Inglesa en Stanford y Arte Dramático en Yale y debutó en la gran pantalla en 1977, con 'Annie Hall'.

# EuskarAbentura

## espedizioa

2024

IZEN EMATE EPEA ZABALIK!  
ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN

www.euskarabentura.eus

**Babesteak**

**Laguntzaileak**

**Hedabideak**

XV CONCIERTO SOLIDARIO DE LOS JOVENES

# DE LA PLEGARIA A LA RESURRECCIÓN

ORFEÓN DONOSTIARRA

DIRIGIDO POR: JOSÉ ANTONIO SAINZ ALEAÑO  
Y JUAN DE LA RUBIA  
ORGANIZADA POR: AYETE Y FAMILIA

23 FEBRERO  
19:30 H  
SANTA MARIA DEL CORO

A BENEFICIO DE

ORGANIZADO POR: COLEGIO MAYOR AYETE (KASTEIXE NAZUJA), Tecnun Universidad de Navarra

PATROCINADO POR: ACUNSA, RAC 100, CAF, campus home, d-bus, EL DIARIO VASCO, TODOTODO

VENTA DE ENTRADAS EN EL COLEGIO MAYOR AYETE O A TRAVÉS DE: https://www.ayete.es/concierto-solidario-24